

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **77/2024 Mozioa, uztailearen 11koa, Kantabria Mendilerroa / Toloño Mendilerroa izendapena dela-eta**

Arabako Batzar Nagusi hauetako Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Batzordeak, 2024ko uztailearen 11n egindako bileran, mozio hau onetsi zuen:

77/2024 Mozioa, uztailearen 11koa, Kantabria Mendilerroa / Toloño Mendilerroa izendapena dela-eta.

Arabako Batzar Nagusiek Geografia Institutu Nazionalari eskatzen diote kasu egin diezaiotela mendilerroaren iparraldeko eta hegoaldeko herrietan bizi diren herritar gehienek egindako eskaerari, hain zuzen ere, "Kantabriako Mendilerroa" toponimoa mendikate horren erdialde osorako berreskura dadila, eta "Toloño" toponimoa soilik mendebalderago mantentzea, azken bi mendeetan izan den bezalaxe.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailearen 11

*Lehendakaria*

**IRMA BASTERRA UGARRIZA**